

Azkunak gaur aurkeztuko du osasun egitasmo berria Gobernu Kontseiluan

Hainbat zerbitzu esku pribatuetan uztea ekarriko du aldaketa honek


Osasun Sailak egindako 'Euskal Osasun Arloko Sistemaren Estrategi Plana' izango dute mintzagai gobernukideek, gaurko Eusko Jaurlaritzaren bileran. Aldaketa nabariak ekarriko ditu egungo osasunaren arlo publikora egitasmo berri honek, hala nola, hainbat zerbitzu mugatu eta esku pribatuetara iragango baitira. Sindikatuek aurkako jarrera agertu dute.

IDURRE ESKISABEL / DONOSTIA

Iñaki Azkuna Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburuak gaur aurkeztuko du Gobernu Kontseiluan 'Euskal Osasun Arloko Sistemaren Estrategi Plana' edo 'Osasuna Zaindu' deitu izan den egitasmoa. Aldaketa nabariak ekarriko ditu proposamen honek osasunaren arlo publikora, bai zerbitzu hauen erabiltzaileei dagokienez baita osasunaren sektore publikoko langileak gututik ukitzen dituen hainbat gaitan ere.

Konpetitibitatea da egitasmo guzti honetan oinarritzeko hitza. Izan ere, sistema berri honen bidez, osasun zentroen arteko lehia ezarri nahi da, Osasun Saileko arduradunek azaldu dutenez, «gizarteak zerbitzu hauetatik ahalik eta errentagarritasun handiena atera ahal izateko». Zentro publikoak nahiz pribatuak sartuko dira lehia horretan, eta ondorioz orain arte osasunaren arlo publikoaren eskuan egon diren hainbat zerbitzu errotxe pribatuek hartuko dituzte euren gain.

Honela, egitasmoak aurrera eginez gero, Osakidetza agentzien bidez hainbat osasun zerbitzu kontratatuko ditu, aldian behar adina. «Osasun arlorako aurrekontuak gehiago handitu ezin diren puntura iritsi dira eta erabiltzaileek gero eta zerbitzu hobeak nahi dituzte. Horregatik, arazo batzuei lehentasuna eman eta hauei erantzuteko modu egokiena bilatu beharrean gaude», adierazi berri du Azkuna kontseilariak, gai honen inguruan.



Langileen arteko homogenotasuna ezabatuko du proposamenak.

XOUSE SIMAL

Zerbitzuen murrizketa ekarriko du gainera Osasun Sailaren egitasmo berriak, azken batean, argi zehaztu gabe dauden oinarritzeko zerbitzuak bakarrik hartuko baititu osasunaren sektore publikoak bere baitan. Hori dela eta, aseguru eta poliza pribatuak egiteko gomendatuko zaie herriarrei.

Osasun publikoko langileen lana, berriz, produktibitatearen arabera neurtuko da. Honela, hitzarmen kolektiboak ezabatze

✓ **Konpetitibitatea da egitasmo honetan oinarritzeko hitza, zentro publiko eta pribatuen arteko lehia ezarriko baitu.**

bidea jartzen da eta lansarien homogenotasuna apurtzekoa. Zentro bakoitzaren arabera izango da finean langileen estatusa.

SINDIKATUAK EGITASMOAREN KONTRA

Sindikatuek gogor kritikatu dute Azkuna bihar aurkeztuko duen proposamena. Alde batetik, CCOO, LAB eta UGTk proposamena gizarte sektore guztietan eztabaidatzea beharrezkoa dela adierazi dute. «Egitasmoaren

eztabaida gizartera eramatea beharrezkoa da irtenbide egokia bilatzeko. Hala ere, Osasun Sailak ukatu egin du hori, eta Gobernuan aurkeztu aurretik, proposamena aztertu eta alternatibak bilatzeko denborarik ere ez digu eman sindikatuoi», azaldu dute LABeko osasun arloko arduradunek, CCOOk esandakoe kin bat eginez.

Argi dago gainera sindikatu guztien iritziz, gizarte sektorerik behartsuenak izango direla neurri honen kalteak gehien nabaritu dituztenak, hau da, erretiratu, langabe eta gaixo kronikoak, «aseguru pribaturik egiteko aukerarik ez baitute». ELAren esanetan, Espainiako 'Abril Martorell' informarean urratsei jarraitzen die egitasmo honek, eta ondorioz, osasunaren arlo publikoaren oinarriak ezabatu egiten ditu.

Arazo berriak osasun arloan

I.E. / DONOSTIA

Osasunaren arlo publikoaren eskema aldatu beharra ekarri duten faktoreak azken urteetan gizarteak izan duen eraldaketa eta honek ekarritako ondorioak izan dira, Osasun Saileko buruek azaldu dutenez. Biztanleriaren zahartzea da arrazoiaren artean nagusia, 2000. urtean EAEko jendetzaren % 60 adinekoa izango baita eta hauek dira kontsumo tasa altuena dutenak.

Horregatik, zerbitzu publikoak emateko garaian lehentasuneko mailaketa bat ezartzea da Iñaki Azkuna buru duen sailaren helburua. Sindikatuek azaldu dutenez baina, aurrez aipatutakoak izango dira erreformarekin kalte gehien jasoko duten sektoreak, adindunak eta gaixo kronikoak hain zuzen. Osasun arloko langileen egoera ere trakestuko da sindikatuen ustez, «erabakiak zentro bakoitzaren esku utziz entxufismoa bultzatuko baita».

Ezindu psikikoentzako bi zentro berri zabaldu dituzte Gasteizen

GASTEIZ

Ezindu psikikoentzako lanerako bi zentro berri ditu Gasteizek atzotz geroztik. Bi zentro berri haun inaugurazio ekitaldia Jesus Loza Arabako Diputazioko Ongizate diputatu buru zela ospatu zen Gasteizen.

Ariznabarra eta Adurtza auzoetan zabaldu dituzte bi zentro berriok. Beroietan tarteko edo goi mailako ezintasun psikikoa duten gaixoak bilduko dituzte, bakoitzean 18 urtez gorako 40 lagun. Guz-

tiek ere enpresaren batean edo bestelako zentro bereziren batean lan egiteko ezintasuna dutela frogatu beharko dute Arabako Diputazioko Ongizate Sailaren aurrean. Sail horrexek adierazi beharko du zentro hauetan sartu nahi dutenen ezintasuna zenbatekoa den.

Zentro bakoitzak mila metro karratu inguruko zabalera du. Sei irakasle izango dira bakoitzean, eta sukalde eta jangelez gainera, tailerrak eta lanean irakasteko gelak ere izango dituzte.

LABURREAN

BIZKAIKO garraio publikoan 5.450 milioiko defizita

Joan den urtean 5.450 milioi pezetako defizita izan zuen Bizkaiko Garraio Publikoak, Rodolfo Ares Bizkaiko PSE-PSOeren idazkariorde eta Bilboko Udaleko azpiegitura zinegotzi ohiak aditza eman duenez. Dirutza horretatik zatirik handiena Bizkaibus, Bilbobus eta Renferen zerbitzuei dagokie. 1992. urtean Bizkaiko garraio publikoak 124 milioi bidaiari izan zituen ●

GASOLINDEGIEK ez dute Polizia hornituko honen zorreatatik

Gipuzkoako gasolindegiek ez diote erregairik salduko Polizia Nazionalari, honek ez dizkielako ordaindu azken hiru hilabeteotako zorrak. Polizien zorrak zenbait milioitakoak dira abenduaz geroztik, Donostia eta Irungo zenbait gasolindegitako iturriek adierazi dutenez ●

TOIZEN txostena aurkeztu du Koordinakundeak

Itoizko urtegiaren proiektua nola dagoen, Nafarroako ubidearen gora-beherak, Espainiako Hidrologi Plangintza Nazionala eta Ebro ibaiaren ur aldaketari buruzko datuak jasotzen duen txostena aurkeztu du Itoizko Koordinakundeak orain arteko datuak eta gertakizunak azalduz. Txosten hau alderdi politiko eta sindikatu guztiei bidali diete ●

ETBK gezurtatu egin du galerak izan dituenik

Euskal Telebistak 94,65 milioi pezetako (4,5 milioi liberatik gora) irabaziak izan zituen 1992an eta ez 'El Mundo' egunkariak atzoko alean esan zuen bezala 500 milioiko galerak (25 milioi libera), EITBko iturriek jakinarazi dutenez. Iturri bereberak azaldu dutenez, informazio horren akatsa, amortizazio gastuak esplotazio aurrekontuei eranstea izan da, horiek kapital aurrekotuen baitan hartzen diren bitartean ●